



"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA. DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bigarren urtea — Pamplona - enero - 1967 — 11^{gn}. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA



LUZAIDE

Bide luze eta anitz biurgune; dena mendi, zubi txiki eta botiga; egunaz kalme eta gauaz erne, badakizue orai zer den Luzaide.

Azoletako amu-arrain finak gogora ekarriz, Ibañeta kaskotik arraintzan dabillen norbaiten ari nahasia dirudi bideberriak; eta peko zolan, amu xuri bezala, bazterretxeak.

Abilak dira Luzaiden. Nola bizi diren ez dakit. Jainkoak pilota eman eta berek ikasi jokatzeko. Elur xuri izanik Ibañetan, kafe beltza badute Donibanen. Ogia balin bada eskas Españian, Frantzian baditake irina. Emen iruzki delarik, an itzal...

Erdara ikasteko ez dute ahanzi eskuara, eta anitzak berdin trebe dira frantsesez. Eta zer gauza goxo, extia, Luzaideko Eskuara! Manezaundi'ren izkuntza baliosa.

Etxean luzaidar; botigetako espainol eta, dena «tore-ro»; garaztar, Donibaneko plazara orduko... Etxean jan eta, Frantzian lan; Erreka aundiko xoriak bezala ohian zabala dute maite, eta ez dute trabarik nahi bidean. Europa aldera idekitako leio aundia du Luzaide Nafarroak.

Urzoak ere barne dira ango bizimoduan, eta urzo-pasak Gabarbidetako izen bat. Zenbat urzo hiltzen da Luzaiden? Ez da aisa jakitea. Ori bai; urzorik hiltzen ez duenak, gezurrez ditu zakuak betetzen, eta biramuneko ere uzten. Ihiztari solas.

Urriak ez da lanik Luzaiden. Ankaz gora joaiten dira gauzak. Urzoak dira legez kanpo dabiltzan kontrabandistak, eta luzaidar guztiak armadun karabinero. Ango zala-parta!

Besteak beste, txoko polita da Luzaide. Eta garbia. Garbi ditu errekan urak, amu-arrainaren begiak bezala. Etxe guztiak xuri eta anitz lili; jendea ere huntza behti.

Txirriskineko urak bezala Frantzira dutela joera? Ortao dira, diren lekian... Eta zozoak behar lukete izan bertzela. Lekuan, lekuko gisa; ez da ori bekatu aundia.

Gure aldizkariak gogotik aipatzen du Eskualerriko txokorik goxoenetako bat. Bertsulariak bezala erranen dugu: gora Luzaide eta luzaidarrak! Atsegin zaizkizuela gure erranak!



URTE BAT

Oraitxe da gure urteburua. PRINCIPE DE VIANA aldizkariak urte bat betetzen du. Gaztetxo da; baño makurrena egina du. Orrek bakarrik pozten gaitu. Asiera eman diogu.

Asiera guzien neke zamaldak izan ditu: nola, nundik eta nora abiatu. Itzeman eta betetzen ez dutenak. Aditu ta sor egiten dabiltzanak... Otzak eta beroak. Betiko gauzak.

Ezer ez izatetik, ilabetero iru milla sukaldetan sarrera ona izatera alde aundia dagola uste baidugu, neke oiek guztiak ontzat eman daitzake gogotik. Gañera, ongi etorri eta abegorri izan dugu bazterretan. Deneri esker ona.

Eta etxeokak? Orotarik badugu. Iru milla izen oietan ez dira izan behar luketen guztiak. Erri eskualdun maite eta jatorrak aipatu nezazke eskas direnen artean. Zer gertatzen da? Erriko apez eta agintarieri bialtzen zitzairen. Banatu ez dutenak badira. Ajola gutxiko gauzak edo... eztakigu.

Ori ikusirik erriarren edo, etxe-izenak eskatu genizkien. Nubai lan aundia. Erantzunik ez. Or ditugu Nafarroko erri eskualdun frango ezin eskuratuak. Eta ez da diru asko gostatzen zaielako.

Lenbiziko urte buru ontan ikasgai asko atera ginezazke. Ixilik egotea obe. Jokabide ontan gure asmoa auxe da: Napartarren izkuntza erabat ixildu baño len, mintzo dugun guzterri itz erdi bat adieraztea. AGINTARIEK diotena, «izkuntza xahar au duela Nafarroak bere aberastasunik aundienetako bat», gure erriarri esatea.

Orai asten dugun bigarren urte au elkartasun aundikoa izan dedillela napartar guzterri artean. PRINCIPE DE VIANAK bere orriak idekitzen dizkizuen bezala, nahi baduzue zerbait bialdu; zuek ere beso zabalik artu dezazutela.

Falta direnen zuzenbideak, bi jaun auetan batengana bialdu daizke: D. Pedro Díez de Ulzurrun. S. Antón 43 Pamplona.

Edo, bestela: D. José Latorre. Diputación Foral de Navarra. Pamplona.

Lan on bat egin dezakegu eta danon egitekoa da.



Mundu Zabalean

Vietnam ipar aldeko sua gelditzera dijoala badirudi; Ameriketa iri asko erretzen ari zen, azken denboda auetan. Gerlarren arteko pakea nolabeit sortzeko gogo bizia agertzen du munduak.

Ilargira bialdu dituzten tresnak gauzako argilearen berri ematen dute. Bai ruso eta bai amerikanoak lan aipagarriak ari dituzte. Orai esan digutenez, lurraren gogortasuneko azala du eta gizonak ibili omen laizke gainean. Laister ikusiko! Aurten bertan rusoak norbait bialduko dutela uste dutenak badira. Gure aurrekoak burua jaso balezate!

Aita Sandua munduko pakearen alde ahal duen guzia egiten ari da. Inglaterrek beste edozeinek ainbat ba omen lezake. Ori dela ta, Aita Sanduak goratu ditu aien lanak eta eskerrak eman.

Sal-erosketako Europa batasunean sartuko da, naski, España. Bide onez dijoaz beintzat, gauzak. Geldi, bai; baño ongi. Fruita eta baratze-belar kontuan irabaziko dugu, olio eta ardoekin bezala.



JOSE YARNOZ ILDA

Gizon aundi bat joan zaigu Naparroan: Jose Yarnoz Larrosa, jaun agurgarria. Arkitekto bezala aipamen aundikoa, Madrilén den Egintza Ederretako (Bellas Artes) Akademiakoa zen.

Berrogei urtez Naparroan egin diren berritze lanetako zuzendari izan da. Bere eskua ageri da bazterretan!

Gure erriaren alde asko eta ongi lan egin duen gizona joan zaigu. Goyan bego.



ESPAÑAKO GAUZAK

Se celebra el referéndum nacional con total éxito. España quiere seguir viviendo en paz y ha depositado su confianza en el jefe del Estado.

Del aspecto económico recogemos las siguientes noticias que resumen el año 1966:

Buena cosecha general de trigo y maíz y gran aumento en la adquisición de tractores. En cambio sigue emigrando la población del campo, continúa una defectuosa organización de los precios y la insuficiencia ganadera ha obligado a realizar importaciones de mucho volumen.

En la industria un gran aumento general en la producción incluyendo la eléctrica. Aumenta también la exportación de productos industriales españoles y muy especialmente la de construcciones navales. Como notas negativas, contención de las inversiones, dificultades de tesorería y disminución de los pedidos

dentro de la nación. Las mayores dificultades aparecen en el sector carbonífero, metalúrgico, automóvil y aparatos electrodomésticos.

En el nivel de vida general se aprecia una elevación de salarios pero a la vez un alza de 4,60 por ciento del coste de vida en los 11 primeros meses del año.

En política financiera del Estado se aprecia una reducción prudente de los gastos públicos y una disminución también prudente de préstamos a la economía privada. En conjunto una política de detención en el gasto y circulación monetaria.

En el comercio exterior se advierte un aumento grave de las importaciones superando las previsiones del Plan de Desarrollo.

En cambio el turismo sigue su marcha ascendente durante 1966 aumentando casi en un 25 por ciento los ingresos por este concepto de divisas.

Franzisko Xabierreko'ari

Gora, Gora Saindu handia
Otoi begira Euskal-herria

Aitaz Garaztarra, amaz Baztandarra
Euskaldun garbia zen eta Nafartarra

Artze onekoa, Parisera joanik
Irakasle andi jarri zen gazterik

Munduak lausenguz zuen liluratu
Enekok berriz, Jaunari bihurtu

Apezturik doa toki basetarat
Miliun pagano han bataiatzerat

Arimen ondolik eguna zeraman
Gabaz ordu luzez zagon otoitzean

Itxas zeru lurra meneko zituen
Eriak sendatzen, ilek ere pizten

Ez da ñor izan Jesusen geroztik
Xabieren ahala agertu duenik

S. Francisco Saindu ain goresgarria
Benedika zazu Euskal-herria.

«¡Artzai Gixagaxoa!» bertsuei argibideak

Gure Azaroko «Principe de Viana»-n Aita Damaso Intza'tar Agurgarriak igorritako «Artzai Gixagaxoa» izenez zeukaten bertso batzuek argitaratu genituen. Bertso auen ondorean, beste adierazpen eta gauza batzuen artean, argi emateko moduan, Aita Damasok erraten du au:

«Onela izendatu ditut «Ozararren» aspaldiko bertso oiek. Berrogei urte nonbait or ditu «Olague'n» bildu nituela. Orko bertso zarrak bezala esan zizkidaten. Bertsolaria Aritz bereko seme zen, edo beste nonbaitekoa eznu ikasi».

Ultzama'ko Auza erriko Erretero den On Emilio Goldarazena Jaun Agurgarriak karta jakingarri bat idatzi digute eta one emen, gutxi gorabera, bertso auei dagozkien erraten dizkigun euskeraz jarritako argibide batzuek:

«Orain ogeitamar urte baditu Aita Damaso eta ni, Auza'n geudelarrik, Auza'ko Antonio Ziaurritz «Sasaun» izengoitiz zenari, bertso auek entzun genizkiola» eta Auza'ko Apez Jaunak, au guzia indar geiago emateko, alaxe izkribitzen du: «Jakiteko gauza da Antonio Ziaurritz zenak nola bertso auek konpondu zituen. Negu gorriaren egun batez Juarbe-Illarregi eta Oskotz'ko errien mugaldetan bere ardiekin zegoelarik, euri kazkabarra eta ikaragarriko otz egiten zuela, ardi geienak auldu, gaixotu eta il zitzaizkan. Gure bertsolaria elorri zar baten azpian, estalpe gisan, zelarik, au «denak» begira-ta bertsotan asi zen naigabeak atzendu eta ahaztutzeko.

Orduan munduari etorri ziren «Artzai Gixagaxoa» bertsoak. Irurogei ta amabortz urte zittuen orduan. Gero etxeratu zenian berriro kantatu zittuen bere etxekoan aurrean.

Gerxeago Don Emiliok erraten digunez, Antonio Ziaurritz «Sasaun» gizon sendoa, kristau siñismen azkarrez eratu, umore onekoa, bertsolaritako giarra eta etorriaz jantzita, Ultzama'ko Ballean guziz ezaguna izen zela.

Azkenez, zuzentzeko eran, ohar batzuek paratuko ditugu:

1goa: Lendabiziko bertsoan, asieran, «Aritzutik Luberbera» erran beharrean, «Aritzutik Juarbera» erran behar du (Juarbe, Ultzama'ko erri bat da).

2gna: Azken bertsoan, «Antonio Onzarra» erraten duen lekuan, «Antonio Auzarra» jarri bear da.

3gna: Aita Damasok etzittuen Olague'n bertso auek jaso, Ultzama'ko Auza'n baizik.

4gna: Ogei tamar urte pasatziak dira Aita Damasok bertsoak artu zittuenik, eta ez berrogei. Ain zuzen ere, 1936 urteko Garagarrillaren egunean (Jaundone Petiri eta Pauloren egunean).

Emilio Goldarazena Apez Jaunari gure eskerronak bere argibideenatik. Uste dugu Aita Damasok Txilen aldizkari au jasotzen duenean gogoz leituko duenik. Aita Damaso'ri emendik berarengana gure agurrik maitekorrenak Itxasotik zear joan ditezela.

U.



ZURETZAT; NERETZAT; BIONTZAT...

Adiskide: goazen berriz ere alkarrekin? Goazen nai bauzu. Len-goan aipatutako liburuak dio ere: «Bizitza zure bidera etorriko zaitzulakoan ez egon: zoaz zu bere bila zure barrengo indar guziakin».

Gaurko iendeen artean geiegi daude bizitzak zer ekarriko agoa zabalik, kabletako txorikumeen antzera. Beren nekerik aundiena, zenbaitzuen segurik, astean bein amalau ttarratta papertxo batean iartzea, ia diru mordoska batez «kinielari» esker iabiltzen diran. Eta... egon: eta... bizitzaz... diabruarenak esan.

Ez zu ta ez ni gera mundura ttottoriko egotera etorri; nai, nai duenak nai duen, gorputz eta animarentzat nekegarrienetatik den ttottoriko luzean egote ori... (Onekin ez datur «kiniela» debekatzen: itsu-itsuan egin, ta bat-batean aberasten bazera; eta zure ontasunetaz onerako baliatzen bazera, bidera etorri zaizunaz bear bezala baliotzen zera nik uste).

Zu, zerau izateko iari zaitu Norbaitek munduan; ni, nerau izateko iari nauen bezala. Zu, zeroi; ni, nerau izan gaitezen; zuk zu-rean ta nik nerean indarsuki irraikiz.

Zeroi, bizitzaren bidera; nerau, bizitzaren bidera: zu, zure bizitza zere antzeko egiñez; ni, nere bizitza nere antzeko egiñez: ta biok, Norbaik orren antzeko izatera alik eta obekien saiatuz.

Zu eta ni mukulukoak izatea eder zaizu? Ez dut uste! Mukulukoak izatea gauz arronta da; eta arronta izateak kezaten zaituela uste dut.

Nor dira mukulukoak? «Ai, ene! Ni besteak bezala bearko! Ai, ene! Zer esanen dute bestela nitaz! Ai, ene! Lotsaten nai!» eta orrelako apaingarriekin beren DEUSEZA estaltzera salatzen diranak. Ok dira mukulukoak: ok dira bizitza bidera etorriko zaitelakoan, egon ta egon daudenak: ok dira besteen antzekoak izan naiez, beren bizitza uts-utsa darabiltenak. Oken antzekoa zu? Ez dut uste!

Zu, zeroi; ni, nerau, nola? Liburuak esaten daku: «Zure bizitza ez da iosteta: afera aundia da. Ez zaude munduan iostetako, gauz aundiak egiteko baizik. Goxotasuna, atsegiña, dirua ta bizitza errazten duten gañerako gauzak bakar-bakarrik billatzen dituzten ainbeste ta ainbeste badirela ikusteak, ez datzu nazka ta goitigalea ematen? Bizitz motela okena: bizitz geza, arrixkuaren gaxitasuna, bixitasuna, alde bat utzi dutelako».

Aski garbi dago, adiskide: Zu, zeroi; ni, nerau, nola? Egun bakoitzak ekartzen dakuna ongi artuz: egun bakoitzari eman bear dioguna ongi emanez: egun bakoitzean eraman bear duguna ongi eramanez: egun bakoitzean egin bear duguna ongi egiñez: egun bakoitzean utzi eta garaitu bear duguna ongi utziz eta garaituz: egun bakoitzean lagunurkoa dezakegun bezein ongi ta biotz onez legunduz.

Zu, zeroi ta ni, nerau, nola? Eriotzeko orduan naiko genukena gaur, orai, egiñez; biar, gero, beranduegi izatea baliteke ta.

Ordu bakoitzari emaiogun bere gazitasuna, bere bizitasuna; gure ustez ñor gutaz oharitzen ez bada ere.

Axtion erraneko edo aipatutako «Ai, ene!» oiek munduko danok leze zulotik beiti botatzen bagenitu; eta geren nortasun sendoakin egunoro, orduoro, kementsuki bizitzaren bidera ateratzen bagiañazke, onean ta zuzentasunean bear bezala saiatzeko, zein eder litzaken guzientzat mundua! Ez zaitzu ala, adiskide?

«1»

ESKUALERRIKO LEJON

• Euskaltzaindiak (Akademiak) bere buruzagiak izendatu ditu. Urtezar bezperan egiña du Donostiko Diputazio-Jauregian ondar billera. Ona emen atera direnen izenak:

Buru: On Manuel Lekuona.

Ondoko: Haritschelar jauna.

Idazlari (sekretario): J. San Martin.

Izendatze au bi urtetako egiten da. Zorionak eta muga onez eraman ditzatela euskal gaien zaindaritzako eginkizunak.

• «Zeruko Argiak» berrehun garren alea atera digu. Gertaera goragari au dela zenbaki mamitsua osotu du. Aritz urtez!

Geienik pozten gaituen gauza, egunetik egunera ikusten diogun aurremendua! Gai sakonak eta joskera berri pinpirinak, anai-arreba onen gisa sartuz dijoaz. Eskuara zaharra, oraiko molde berritan; au da gure iraupenaren bide bakarra.

• Madrilko Ikastetxe Nagusian eskual gauzen alde. Inguru artako ehun eta irurogeitamar (170) ikaslek «Euskal Ikastetxe Nagusi» bat, (Universidad Vasca), eskatu diote ministroari.

«El Alcazar» egunerokoak dionez, «eskualerriaren jakintza kontuan artuz, eskualdunen nortasuna aurrera ateratzeko giroa sortuko duen ikastetxea. Gaur sukaldetan sarturik daukagun eskuara astindu eta zabaltzen saiatuko den Unibersidadea».

Liburu berriak. Euskeraz asko idazten da gaur. Leitu, oso gutxi. Batzuk denbora faltan; beste askok alferkeriz edo zer eskutan artu ez dakitelakotz. Ona emen bi liburu eder:

«San Frantses Jatsukoa». P. Arradoy. Eskuaz eta frantsesez egiña. Gure Xabier aundiaren bizitza eskualdun batek moldatu digu oraikoan; eskual kutsua eman dio eta Saindua bezala, eskualerriko txoko bakoitza mintzo da liburuan. Narbaitz jaunak egiten dakien bezala. Baxe-Nabarreko eskuara, argi aberats eta bizi emana digu. Zorionak.

«Garoa». Txomin Agirre. Askotan argitaratua izan den liburu jatorra, Arantzazuko frantziskotarrak txukun eta arin moldatu dute. Bi gauza zaizkigu, batez ere, atsegin: A. Villasanteren itzaurrea, egile agurgarriaren bizi-modu eta xehetasunekin; eta, gure erritako gizonak eskatzen duten «letra larria».

Ehun urte burua dela ta Txomin Agirre apezari egin zaizkion omenaldiak bere maillan utzia dute Eskual literaturako idazle ospetsuenetako au. Orain iturrira joan eta bere idazkera goxoa xurga-xurga edatea daukagu.

TRAKATAN- TRAKATAN

(Saldis'ko «Artzai Deia» euskal Orriatik artua)

— 1 —

Trakatan, trakatan, lru errege, Trakatan, Trakatan, Belenera. Belenen jaio dan Jesus Aurtxoa. Trakatan, trakatan jaurestera.

«Zapatatxoan jostallu politak ematera».

— 2 —

Beltxorrek, trakatan, zaldia beltza, Kasparrek, trakatan, zaldi gorri; Trakatan, trakatan, Baltasar zarrak zaldia, trakatan, txuri, txuri.

«Zapatatxoan...»

— 3 —

Trakatan, trakatan, izarra dute ain bide luzian gidaria; Trakatan, trakatan, Jerusalemara oraintxe eldu dira ia-ia.

«Zapatatxoan...»

— 4 —

Trakatan, trakatan, izarrak berriz len bezala argi ta dizdizari; trakatan, trakatan, Belenera arte bideko pozkille ta gidari.

«Zapatatxoan...»

UR GOYENA...

ur goiena, garbiena,
urte zarrak daramana
itzuliren etzaiguna...

itzuliko etzaigu ta
berekilan guk joana
aren baitan ginakana.

ur barrena, sakonena,
amets-zale guziena
urte-berri diotena.

urte-berri diote ta
izena du berriena:
negu beltzak gau iluna.

ur goiena, ur barrena,
urte-berri egun ona,
pakearekin osasuna.

pakearekin osasun eta
jainkoarekin zoriona,
ondasunen ondasuna.

J. M. SATRUSTEGUI

POLAINENA

Ezkurrei gerta zaio
aurten bein batian,
El'zaa zidoaie laik
igande goizian,
ustez ongi jantzirik
zidoaien soñian;
bidian oartu zen.
polain bat onian.

Eskutan arturikan
bere polain ori,
egiten dio, bada,
bere buruari
iau duk ba deskuido!
¿Zer gerta zait neri?
me-samarra bide biet
pantorrillo ori.

Gizon propie da-ta
errespetokoa.
ez tiki t'ez aundi
neurri onekoa;
gizon ori izan laike
nai bezalekoa (tankera onekoa)
baldin pantorrillo ori
ba-lu plantakoa.

Ogei ta amar botonez
polaina loturik,
zangoan paratu zun
ongi amarraturik.
E'izera joan da
polaina galdurik.
¡Ezkurrak balentie
potzoloa bota dik!

Jostaguran egin zitun berso aukerak
gure bersolariak. Ezkurraren ajeak
azaltzen dizkigu, artaz parr-eg'ñez.
Baño berau, alako bizitasunik ga-
bekoa ta bere gogoraldietan mu-
rritz-antza iruditzen zait. A a er-
bero'etan ageri delako orduko ber-
so-kerak, bein bildu nitun ezkerok
ez ditut galtzen utzi nai.

Bidenabar gipuzkoarren bat oar-
tu diteke, bederatzi puntutako
bersoak G'puzkotik atera ere ba-
zerabizkiela gure bersolariak, eta
maite zituela. Urbillengo beroren
bersotan ikusi.

"INTZAR DAMASO AN"

«BAGUAZ»

Azken unea aitu
ta ill da urtia.
Asi da beila igeska
ertzetik bertzia.
Aurrez-aurre or dago
zabalik bidia.
Ideki digu Jaunak
berriro atia.

Galdu da lengo urtia
ezerez ta utsian.
¿Nola gelditu gera
betiko aitzian?
¿Ongi egiñen pozez?
¿Larri ta nekian?
¿Onen izpirik gabe
utsun illunian?

Amildu dira urtiak
eternidadian
axola aundirik gabe
oraiñ bitartian.
¿Nun geneuzkan buruak?
¿Illkor poz artian?
¡Obe jarri bagiu
goyen-goyenian!

Alperrikan gabiltza
begitzen atzera.
Begiratu dezagun
beti aintziñera.
Erantzi gizon zarra;
bota bazterrera.
Jantzi gizon berriya
Kristoren antzera.

Urte berri onetan
ereiten badegu,
bateko eun biar bada
bildu lezakegu.
Ortako goi laguntza

eskatu biar degu.
Guk ereiñ, busti arren,
almena Jainkuak du.

Ereiñ ditzagun azi
betiko diranak,
lapur ta sits bildurrik
iñola ez dutenak.
Gabiltzan gogoz beti
zintzo ta zuzenak.
Jaunentzat bitez beti
gogo mardulenak.

Benetan nai badegu
aberatsak izan,
moztu lurreko larrak,
utzi zarkiñak an.
Goruntzara lurretik
ekiñ, jarrai, egan.
Zeruko burustenez
jantzi ametsetan.

Olerkari maitia
anai zeratenak,
txortatu nai nituzke
lore usaidunak
bakoitzari jartzeko
uztai loredunak,
Urte-Berri onetan
zeruko osasunak.

Anai irakurleak,
nik zueri danori
dizutet nai biyotzez
zoriontsu Urte-Berri.
Izan zaitezte denak
(eskerrak Jaunari)
bizi zaten bitartin
egi gose beti.

JOAQUIN ALDAVE

URTEBERRIKO eske-kantak zarrak

*Dios tesalbe, Ongi etorri!
Gabon Jainkoak diela
legearekin konpli dezagun
Urteberriren bezpera.*

*Urteberriren bezpera da ta,
eskean gatoz atera,
Ama Birjinan seme garbia
doaielako pontera.*

*Esku xuritan papera,
maiean urrez platera
lotsa gogorrez eldu gerade
jauna berorren atera.*

*Usoa doae kotara,
nere begia lotara,
Nagusi jauna, oraintxe noa
berorren koplaetara.*

*Etxekoandrea, aur ona!
Horixen da zoriona
Bazko goizean jantziko ditu
bere soñean sei gona.*

*Xuri nabarra azpiko,
gorri ederra gaineko,
Andrea, zure berdiñik ezta
etxe bat zuzendutzeko.*

*Horroko hor goien antzara
etxeke seme nun zara?
Gu zuregana etorri eta
Iñun ageri etzara.*

*Etxeko alaba nun zara?
Iñun ageri etzera,
Atoz onara ate ondora,
gure illunak kentzera.*

*Lau mutil gazte badauzkat eta
jarriko ditzut aukera,
neroni ere gaiean nago
baldin gustatzen bazera.*

*Horroko hor goien otea,
dena da lorez beteak,
etxe huntako alabatxoak
kutxan daduka dotea.*

Horroko hor goien antzara,

*Joxepanttoni, nun zara?
Mundu guzia ezkondu eta
Zu zertako iñ-etzara?*

*Damatxo gazte, txukun liraiña
arpegi zuri gorria
zure masailla iruditzen zait
grabeliñaren orria.*


*Grabeliñaren orria
t-arrosa maiatzekoa,
zuri begira hementxe nago
gaztetxo biotzekoa.*

*Ari naizela, ari naizela
nekatu zaizkit ezpañak
Etxe huntatik espero ditut
erreal bi ta gastiñak.*

*Emango bauzu, emazu,
bestela ezetz errazu
Ate ondoan oztak hiltzera
amak ez gaitu bialdu.*

*Eskupekoa hartu duguta
orai abia gaitean,
Adiorikan ezdegu eta
agur ikusi artean.*

A. APAT-ETXEBARNE



Euskaldunek benetan maite dituzte bertsolariak. Auek Euskal giroa, arima eta euskera agertzen dituzte toki guzietan.

BERTSOLARIAK

Euskaldun yendeak bertsolariak aunitz maite ditu, gure mintzairan erranak eta bertsolarien ezañetatik ateratzen diren itz negurtuak beren biotzetan sartzen baitira eta ori euskaldunek bakkarik goxatzen ahal dugu. Nafarroa'n ere bertsolari onak baditugu oien artean, Arotzarena bi anaiak, NARBART, Madariaga, Aldaz, OREXA, Mihura, Ezkurdia, Perurena, Iriarte ta aunitz geiago. Lasarte bertsolari famatua ere nafartarra dugu, Leitza'ko semea eta aspaldi ontan Gipuzkoa'ko Ori'ko errian bizi dena. Gure koblaría Gipuzkoa'n asko maite dute eta or dabilla ango bertsolari oberenen artean erriz erri bertsoak kantatzen bere yakitatea ongi aski erakusten duela. Uztapide ta bera askotan elkarrekin ibiltzen oi dira eta beren artean egindako bertsoak guziz gustagarriak izaten dira. Yoan den San Jose egunean Elizondo'ko Antxitoneko trinke-tean bersolari besta bat egin zuten eta bereartan aritu ziren, Uztapide, Xalbador, Lazkao-Txiki ta Lasarte. Gai asko erabili zituzten, batzuek hunkigarriak biotza ukitzen zutenak eta bertzeak irringarriak yendearen atsegiñerako. Aipatu behar ditugu egun ortan Lasarte'k eta Uztapide'k elkarren artean eginikako bertsoak gai au erabili zutelarik:

«Uztapide beti lanean eta beti pobre eta gaizki bizi dena eta Lasarte pobrea bai bainan batere lanik egin gabe ederki bizi dena».

UZTAPIDE:

Ya bada Lasartek era du konpontzen
baña gauza zalla da gizon txarrak ontzen.
Beti lanean ari gera eta dena kentzen
oraintxe asperu naiz alperrek mantentzen.

LASARTE:

Ikusi dituzute atarramentuak
ta erantzuteko nik gaur pensamentuak.
Badakizkitu zein diran lanaren kontuak
ori egiten dute olako tontuak.

UZTAPIDE:

Zuengandikan sortu izan dira gerrak
ikaragarriak dauzkatzut zuri esan beharrak.
Merexi ez ditunari nola eman eskerrak
guk egiñak jaten beti ai dira alferrak.

LASARTE:

Badakit erantzunak zuzen datozela
Ta badakit temara onuntz gatozela.
Itz batean esan dezu alferra naizela
argatik bizi naiz ni gizonak bezela.

UZTAPIDE:

Beste bertso bat bota behar diot mardula
badakit arrazoia gerekid degula.
Au bera ere listoa ez da izan sekula
alderdi bakarra du lotsarik ez dula.

LASARTE:

Langilea izketan zabilta nik argiz
nik ere erantzungo det euskera garbiz.
Nekatu ta ikusi det makiña bat aldiz
ola ezin ibilli listua izan balitz.


UZTAPIDE:

Lanera ez du joan nai egunero oporra
lanik ein-be bizitzia da lanik gogorra.
Dirudik ez dabilki eta nun-nai zorra
kartzelera joan beharra dauka derriorra.

LASARTE:

Ez zaidazula bota olako txisterik
zuregandik ez dago arrazoi tristerik.
Zu ere ez dago ondo emen ikusterik
ezer ez dezu aurreratu nekea besterik.

ANZANARRI



Begira zein mingatza ta gogorra den etxetik kanpo jaten den ogia...

Zer diozu, Josetxo ¿Bizkorrean?

—Jaungoikoari esker, ongi naiz eta lan faltarik ez dut. Datorren best illabete, segur-aski, nun dantzatu izanen dut. Ardiak erditzeko lan zitu oneri «Ataun'go bestak» deitzen diot.

Zer ba, ¿lan asko?

—Gutxi ez beñipein. Udan 2.400 buru nere gain nittun, eta... oieta-tik 2.250 bat, orain erditzeko. Ia bakarrik, nola buruti oinbeste. Ez ditekena da.

Zer ¿Bakarrik al zaude?

—Esate baterako, bai. Nagusiak ez du beste artzai-mutilik zurtzaten eta bera gaxo samar ibiltzen da ta ardiatan laguntzera gutxitan etortzen zait.

¿Noiz ezker, bada, ola?

—Oso berriroko kontuak; Amerikano zar oiek uzartean bezala gauzkate, bi eta iru lagun lanak eragiñeraziaz. Au ezta bidezkoa.

¿Beti ola ozan al da?

—Ez jauna. Leenago frantzes artzaiak etortzen ziren. Ta oiek lau izaten ziren 1.800 buruentzat. Bi beti mendian ardiekin eta beste bi etxetik ibiltzen ziren. Gaur alerik ezta etortzen. Frantziko Lendakari De Gaulle'k NATO'tik bereixtean ortzak erakutsi dizkie amerikanoei, eta frantzesei galerazi diote onat etortzea, eta ezdu nai Frantzi'tik gatu bat ere alderdi oietara etortzea.

¿Mutil polita dago Frantzi'ko Lendakari De Gaulle?

—Mutil polita?... Orrek bai merezi dittuela txaloak. Ori da egiazko abertzalea. Beste ainbeste egin bear lukete España'ko agintariak.

¿Zer gertatzen da ba?

—Gauz asko eta oso negargariak. Ta okerrera da egi guztia ezin esan. Amerikano oiek itxura-ontzi batzuek besterik ezdira. Agoan bai azkatasun asko, eta egittetan batez beintzat.

¿Ez al duzute askatasunik, ta nortasunik?

—Askatasuna guk?... Ez, ez. Ezta askatasunaren usirik ere. Etorri banitzen etorri, ementxe nago mendian pixti tartean, pixti biurtua. Guretzat ezta lanean neurrik ezta ere barkaziorik. Amerikanok ezdute zortzi ordu besterik lanean pasatzen. Guretzat ezta ez gabarik eta egunik; ez jateko, eta ez atsegiteko ordurik; Batez ere lana errukirik gabe eragiñerazten digute. Gu ezgera emen deus ere. Oiek gure gain bizitzea besterik ezdute pentsatzen.

¿Ikusten dut oso bizi modu gogorra ta errukaria daramakizutela, aldatu al dezakezute artzaingoa beste lanbide batez?

—Gure asmoa litzake ori. Baño ez Jauna, ez. Naiz ori, berez, oso bidezkoa izan. Ez daukagu inora iges egiterik. Artzaingoa landera irabazibide obeagoak dira, baño ezdira guretzat. Artzaingoa utzita landere joaten dinarengana «polizia» belaxen ibiltzen da, ta ezbadu mendira itzuli nai, or bialtzen dute España'ra.

¿Amerikano asko ikusten al dira mendian ardi zai daudela?

—Entzun zer dioten: «oraindik ezdu ikusi artzai mendian». Lan au ezdute benentzat, nai izatekotan besteentzat. Amerikanoak egiz zuzen ibiltzea oso gogoko dute. Baño lanbide onetan ezta zuzenbiderik.

¿Artzaingoz landerako langilleak, zuek baño geiago irabazten al dute?

—Bai, Jauna. Guk alako bi irabazten dute. Ta zortzi ordu bakarrik lan egiñaz, ta gañera barkazioak.

¿Gauz oiengatik peliatzen al zerate zuen nagusiek?

—Askotan, Orrengatik utzi nuen lendabiziko nagusia eta etorri nintzan oraingoarengana. Baño egia

esateko, ezta balio peleiatzea nagusiarekin. Begira zazu zer gertatu zitzaieen leondar batzuei: Ematen zieten janariakin konforme etzirelako, batzuek España'ra bialti zittuzten, eta besteak giltzapean sartu.

¿Nor dira, zure ustez, ezbear eta oker oien sortzaileak?

—Lenik ardi nagusiak. Oiek aitzaki, ta maitzaki, al duten saririk guttiena ematea, ta lanik geiena egiñeraztea billatzen dute. Bigarren, artzaiak ekartzeko onara «paperak» egiten duen Elkarte edo Billera ori.

¿Zenbatsu artzai zaudete or?

—Iru bat milla Ipar Amerika alde auetan.

¿Orrenbeste izanik nola etzerate geiago elkartzen?

—Badaki elkartean dagola indarra, baño elkartze onek ematen ditu lanak. Galera, asko ez baidira deusetaz konturatzen. Ematen dieten janari ta sariarekin ortxe egoten dira ixil-ixilik. Emengoak ori nai dute, inork ez zirikatzea.

¿Kontratu kentzeko edo luzatzeko jolasak entzun dittut, zerbaiten berri al dakizu?

—Oraindik beñipein jolas utsak. Ardi nagusiak eta «Asozazioak» orain dela bi illabete egin zuten billera. Ardi nagusiak «kontratu» segitzea nai dute. Kontratu kundu ezker artzai-euskaldunik gabe geldituko lirake ta ardieta irabazibideak lur joko luke.

¿Eta bukatzeko, erreljio gauzetan zer moduz?

—Mendian zer egitea nai du? Beti zerbait egitera sayatzen naiz. Berak emandako errosarioa beti nerekin eramaten dut. Al dutenean erretzen dut. Jai egunetan erriko elizaz eta etxekoetaz asko oroitzen naiz. Alako zera bat izaten dut. «Erradioz Jaungoikoaren azalpenak entzuten dittut. Gañera oso pozik entzuten dut. On aundia egiten didate. Aiek entzutean Jaungoikoa arkitzen dut. Besterik geiago ezin dut egin.

Agur, bada Josetxo. Eskerrik asko bialti dizkiguzun berrietaz. Egon bizkor.

(Olaso'ko Josetxo'ren kartatik artutako berriak, Saldias'ko «Artzai Deia» euskal orrian argitaratuak).



Baztandarrak Italia'ko mugako erri atean bilkura ondorean.

IKASI, MIKASI...

¿Zeñ izan zen lenago: olloa edo arraultze?

Aspaldiko gertaketa batekin asiko naiz.

Miljoxe, «amerikano» gizagajo ura, naiz elizeko gauzetatik oso alderatuta bizita'ere, nere adiskide aundia zen. Ta, ¿badakizute zergatik ainbeste aldiz nigana etortzen zen? Nik sumatu nuen bezala, bere fedeen kezkan zebillelako.

Ara, emen, biek alkarrekin izan giñun izketa.

—Zerbait galdetu nai nioke, jauna.

—Galde, nai dezuna.

—¿Bai al da zerbait eriotz ondoan? ¿Egi al da, Jainkoa gauza guzien egilea dela?

—Miljoxe, nere lagun aundia! ¿Egiz, ez dezu siñisten Jainkoa denik?

—Siñistu...! Gazte denboan siñisten nun, nere gurasoak eta apez jaunak ori erakutsi zidatelako. Baño, gero, Ameriketara juan nitzen ezker, kezkan nabil beti.

—¿Ez didazu esango zeengatik diren kezka oiek?

—Ainbeste gizon eta emakume ikusi bai ditut, deus ere siñisten ez dutenik, nere burura etortzen zait ia kontuk izango ote diren Jainkoa dela ta gure anima illezkorra dela, ta gauza guzi oiek. Beste aldetik, ainbeste gizon jakintsuk siñisten badeute gauza oietaz...

—Zure egokieran gañean nago, Miljoxe. Utzi alde batera zer dioten zure aldamenekoak, eta aditu zure barnengo abotsari. Ortarako degu gizonak arrazoiak. Eta, arrazoiak ¿ez dizu esaten etzitekela deus izan Jainkoik ez balitz?

—Ori nai nuke argiako ikusi.

—Oraintze, bertan, ikusiko dezue.

—Ia, bada.

—Ara, emen, erloju au. ¿Euntzi

on batean jaioa izanen da, zizak eta onthoak jaiotzen diren bezala?

—Erlejuak, beste tresna guziak bezala, gizonak egindakoa da.

—Ta, ¿etxeak?

—Baita etxeak ere.

—Ta, ¿mundu guzia?

—Mundua betikoa da.

—Jainkoa bakarrik da betikoa! Beste gauza guziak izan dute beren asiera, eta izango dute beren akabera.

—Nik ez det ain garbi ikusten, ori ola denik. Nik ikusten det mundua bueltaka dabilela beti. Urek itxasora dira ta itxasotik odeitara. Zugatzak zugatzagandik, abereak aberengandik eta gizonak gizonen eta emakumeengandik datoz. Ta ori, beti eta beti...

—Gauze oien saille motxa besteik ikusten ezduzulako, diozu zuk ori. Gauze oien saille osoa ikusiko baziñuke, etziñuke olakoik esango. Adibide batekin ikusiko dezue argiako. Baño, lenago, gauze bat galdetu bear dizut. ¿Badakizu zer den azkengabea, edo infinitoa?

—Ezin geiagokoa.

—Ongi esan dezue. Azkengabea ezin geiagokoa da. Uste dezagun emendik Madrilleaño'ko gari pillo bat. ¿Ale bat, bakarra, jarri alde-zaiokegu pillo orrei?

—Pillo aundia izan arren, aundigoa izan liteke.

—Ori ola dela, ara emen nere agibide edo ejemploa. ¿Badakizu nondik datorren olloa?

—Arraultzetik.

—Ta, arraultze ¿nok paatzen du?

—Ollok.

—Ta, ¿zeñ izan zen lenago: olloa edo arraultze?

—Olloa. Arraultze paatzeko, olloa bear da.

—Ta, ollo ori, ¿nondik jaio ote zen?

—Ortan kontua! Ollok ez badago, ez dago arraultzik, eta arraultze ollok paatu bear...

—¿Ikusten dezu orain nola, nai ta naiez, gauza guzien egilleekin —Jainkoekin— arkitzen gerala? Ta, erlejuak egiten dunak, jakintasun aundiak, gurpiltxo guziak jartzen dizkien bezala, ¿jakintasun aundi-goekin egiñak ez gera izango, bere borondatea, au da, gure salbazioa iritsi dezagun?

—Bai, orain siñisten det!

—Ez, bada, kasoik egin gizon eta emakume askok zer egiten edo zer egiten ezdutenei. Zuk egin zazu arrazoiak eta fedek erakusten dizkizutenei, eta ola, ta, ola bakarrik, iritsiko dezue zera.

ASTIZ ARREGI

Mendi-mutil maiteak etxeratzen

Ama beti esperoan zegoen. Aspaldian egoaldi txarrak ari baziuten eta oso nalgabeturik amaika aldiz esaten zien etxekoel: «Auxe bai dela gogorra; yeus ez yuke etorria balego gure mutil ure orduan sikira kezka gutxiago emanen likek. Au xuk lana. Zer ari ote da ure an? Olako denborekin yeus etzettekek bada egiñ. Elduen astoan Santa Luziak yuk. Etorriko al duk orduko». Gure ama onak gisa ontan askotan mintzatzen dira beuen seme maiteen kezkek eraginda. Jaungoikoari esker, gure mendi-mutil maiteak etxera etortzen asi zaizkigu beuen amak pozez gañez egin dute, sukaldeko atean sartzen ikustean. Bertsolaria izan banintz, bertso bana jarriko nizkien. Orain arte beñipein denak osasundun eta oso bizkorrean etorri zaizkigu. Orrengatik neurrigabe pozen zaigu gure biotza. Denak ezdira bakarrik etorri. Batzuek bidean aisago ibiltzeko bere gisaz laster aundia egiten duen «zaldi» bat ere ekarri dute. Señale ona da ori: señale badela; eta duen guzia ezdaramakila berekin; eta zer gerta utzitzen duela pixkoat etxean, gerokoz oroituz. Orain ogei urte etzen olakorik ikusten gure errian. Denentzat amets batzuek ziren. Gure ontasun oietaz Jaunari esker biotzekoak eman bear dizkiegu, batez ere osasuna ta dirua irabazteko bide bikaiñ au eman digulako. Baita ere eska dezaigun diru egarririk geiegizkoa gugandik urrutitzeko. Poz aundia artu dugu ikustean etorri direla. Denei ementxetik ematen diegu gure ongiatorri biotzekoena.

«BONOXTA»



...Eta bazkaria umore ederrean... txampan ondodetik, euskal erriko kantak... zein ederrak diran euskal erriko kantak, batez ere an entzun ta...

ERRIZ-ERRI



SALDIAS

siz joan bear. Denborak denak agertzen ditu. Ori denentzat oso mesedegarri izango da. Baño esatera zarrak dio: "Urrutiko intxaurrak amalau, bertaratu eta lau".

duten guziak. Urrangoan erranen dugu besta ori no'a gertatu den.

IZETA

ARRAIOTZ (BAZTAN)

BASERRI TA NEKAZARIEN BIZIA

NEGUA

Abenduan gera bagoazi gainbera malda beiti bezala, negu beitz untara. Eztakigu zer negu izanen dugun. Badago erran zar bat: **Azaro bero negua eldu da gera, Azaro oltz negua gan da motz.** Aurten Azaroa gan zen oltz eta ora'n esperantza negua gainen da motz. Aspaldiko ikusi gintuen mendi tonorrak... "kaskoak" xuri xuriak elurrez yauztziak, eta neketan asten dire urtzen. N'k itaun nere baiten e'urre oiek ez al dauden berriz elurren esperoan. Yudu eta aidu naiko, euri, aize, elurre, kazkarabarra, ortotsak, eta abar, baño ala ere ezta aspertzen.

Ementxen aurkitzen gera auniz eta auniz artoak erdiez biltzekoak, pena izugarriek daude erdi ustelduak. Nai giñuke bada denbora auxe goratu dadie artoak biltzeko eta gariak "ogiak" ereiteko. Er eak bere etxetara nola biltzen diren, alaxe gende etxe aldera bilduek. Orain lan aundixkirik eztago, batzuk arbiak ateratzen, bertze batzuk beiak zaintzen belayetan, bertzeak su bazterrean yosten edo puntuen galterdi, edo lastiku egiten. Olaxen pasatzen da egune eta atsian eztago esanbearrik: Sabaira "arto xuritzera" bortz edo sei lagun xurita eta xuritu. Etxeko nagusie konten egote da ikusten duelarik "buruzarea" maiz betea, eta exportara erdi utse "arto xokorrez". Sukaldean berriz antxen "aitatxi" zarru su ederra sintonizian, abar multze eta egur-arallak ondoan erre a'ña emateko. Eta esku tartean ¿Zer idukiko du? Padera gaztañez betea, kir... in, eta kar... an. Alako batean egiñen du oyu aitona xarrak sukaldeko xokotik sabaira, denak etortzeko gaztañak erreak daude-ta. Agudun etorriko gera denak, yarri indianoen begaan, "in-guruan" eta yan eta yan. Aren ondokit zer? Katillu esne ederra, ondokit errosarioa saintia eta goatzera "puzkerra" dariola.

Olaxe gaten da neguen erdie. Gero denbora ontzen asten delarik ortxen lerroka bei pareak bidean goiti larretako iratzeak eske, denak gaten dire, batzuk xixtuz, bertzeak kantuz.

Geroxeago asten gera ongarriak prestatzen, batzuk aitzur eta makolez errotzen, bertzeak dondekoein belayetara edo landetara garraian, edo altxarrazteluz edatzen. Fite xamar gero arto ereiteko pentsamenduetan, eta gaten da urtea.

Onatx baserri eta nekazarien bi ni modua. Onela segitu ana-arreba maiteak. Zoritzarrez baserriak us ten ari dire, denak errietara bizitzera. Batzuei semeak artzai Kaliforniako mendi aldetara gan zaiotzela, edo a'abak "sasoin" egitera Frantziara gan zaiotzela, eta landak eta belai p'ñuz bete, atia etsi, eta "guazin karrike tartera", olaxe auniz eta auriz ari dire pasatzen gure ingurutxu untan.

Urrango arte, agur biotzez.

UGARTETAR ANA MARI

DONEZTEBE

SANTA LUZIA

Santa Luzia Santu arrigaria da. Urteak joan eta urteak etorri, beiti berdin segitzen du, batere zahartu gabe. Galera urteoro "debotto" berriaz inguratzen da. Zorionekoa Doneztebe olako Santa miragarri due'akoz. Inguru oietako gaztedia antxen bildu zen bere erunean. Elizan eman zitzaion asiera jaiari. Gure gaztediak Me sa Santua ta Arantzazu'ko Pra'ile Aita Etxeberria'ren itzaldi bikaiña entzunez bete zituen animaren a'deko eginbearrak. Gero or gelditzen egun guz'a naiko "turron ta mazapan" jateko. Eta zergatik ez?, goxoki beste zerbaitez itz egi-teko? Bejondeizuela.



NAPARROKO BERRIAK

Beti bezala, urte berrirako heldu zalzkion gastuen kondu eman du gure Diputazioak. Auek ere aundituz beti. Lengo urtean baño bostetatik bat gelago. Beste modu batera esateko, len baño berreun eta berrogeitamar (250) million geiago.

Zertan sartzeak diren? Bost ehun million beintzat, nekazari-tza, aberezaintza, mendi eta eskola gauzetan. Ehun million azkeneko pundu ontan: alegia, ikasketan.

Huarte jaunak lengo urtean egin direnak aipatu zituen, bere itzaldian:

- Bideberritako lanak. Naparroko bizkar-ezurra eta ezkerreko besoa bezala diren, Zaragoza eta Bilbo'ko bidetan 400 million sartu dira.

- Industri berritan eman duten bultzadak 12.000 milla langile sari sortu ditu. Eta ondoko urtetan beste ainbeste egitekotan dira.

- Eskol etxetan, Tudela eta Marcillakoa idekiak dira. Elizondo eta Leitzeako lanbide ikasketako etxeak ere eginak dira.

Bestalde, gure aldikari «Principe de Viana» ongi ikusia eta atseginez artzen dela, jakinarazi digue. Dena euskeraren alde! Gure asmo eta naikari m'ñena, erdarekin batean, bigarren izkuntza bezala eskoletan ikustea litzake.

ILLA

Yoan den Azaroan, Labain'en Jaun Battista Apez Yaunaren ama il zen. Aspa dixkoan ez ongi xamar zebillen. Ezta arritzekoa, 86 urte berekin zeramazkin-ta. Elizakoak eta dena arturik il da, Zeruian bego. Bere Illeortza eta illetak zan ziren, goizeko amaiketan Labain'ko Elizan. Parrilliko guziak bildu ziren. Oliba'ko Aita Martiñek eman zuan Meza. Egun berean, atsaldako auetan izan giñuen bere animaren alde Meza bat Saldis'ko Elizan. Au Juan Battistak eman zuen Aita Martin eta Urroz'ko Apez Yauna Lagun zituela. Erasun'go eta Ezkurre'ko apezek ere emen genituen. Erriko gendea ere oso ongi etorri zen. Mariak dena merezi zuen. Ainbeste urtez gure Elizako serora izana. Zifentan fede aundiko andrea. Ezta geiegi esatea, beñiere etzela aspertu ez eizan ez eta lanean. Bere neke eta kezketak guzien saria Yaunak eman izanen diola, pentsatzen dugu. Familliko guziei agun egiten diegu beuen najabealdian eta Yaunari eskatzen diegu eman dezaiola betiko atsedena Maria Mutuberria zeneren animari.

ARO TXARRAK

Denborak batere ezta aguntzen lanerako. Euria ez bada, elurra egiten du. Egun osoa ateria ia batere ez. Aspaldian ez dicitu gure nekazariak sumatu ain neketan, ez artoak sartzeko nola gariak ereiteko. Beste aldera, ez dago kanpo-giro txarra. Soroak "berde" eta arbiak oso onak daude.

Batzuek errenkura franko ateratzen dute piztietatik deus ere ezin eskapatu dutela. Azkonarrea ez bada, belea or duzu. Be'ea ez bada, sagua. Sagua ez bada, satagiña. Satagiña ez bada, konejua. Ta abar. Gure nekazariak etsai askoei kontra egin bear, egia esateko.

ATXURDIN ARROBIAK

Gure Tantada'ko atxurdin (mar-mol) arrobiak estimazio gogorra omen dauka. Ala dira otsak. Iku-



BAZTAN

Baztan a'de untan bertze lekue-tan bezala konzejal autatzeak izan gintuen. Sei ziren autatu beharrak eta emen agertuko ditugu Balleko Etxean sartu beharrak diren oien izenak. Ana Mary Marin Joakin Azkarate, Jabier Kariakaburu, Nikasio Irigo'en Manuel Olabe eta Jose U'valde. Ar ditzatela gure zorian beroenak eta Baztan'en alde an on bat egin dezatela euskal kulturaz atzendu gabe.

BERTSOLARIAK

Ilabete unen 15'ean Yainkoa lagun Elizondo'ko Antxitoneko trinketean bertsolari besta eder bat izanen dugu Euskalerriko lau ko-b'ari obere-netakoak bereartan ariko direla. Or izanen ditugu, Uzta-pide, Lasarte, Lazkao-Txiki eta Arotzarena, bi gipuzkoar eta bi nafartar lauak on onak eta yendearen gogokoak. Badugu uste egun ortan Antxitoneko trinketea leporaño beteko dela denok baitakigu baztandar yendeak bertsolariak aunitz maite dituztela eta antxe bilduko dira eskuara zinez maite



Luzaiqe'ko Bolantiak, Yauztziak, Euskal Besta batez, Karrikak alaitzen.



Bolantia dantzan



IRUÑA

EUSKAL IKASTALDIAK

Iruñe'an euskera ikasteko bideak ausarki baditugu, eta orain Iruñe'ko bizi'agun batek nun aukera eta bereiztu euskal ikastaroak baditu, bearrik.

Zorionean daude bada Iruñe'she-meak, eta berriaz bertako euskaltzaleak, auek eta beren semiak aise eta errezi euskeraz mintzaten bere jai eta bizi erri maite ber-berean ikasi dezaketelako.

Aipatuko ditugu emen nun eta noiz izaten dira euskal ikastaroak Iruñe'an:

Naparro'ko Diputazioak emana, Irakaslea: Tirapu Jauna. Ikastetxea: "Merkatalgo, edo Komerzio Esko'a" delakoan. Asteoro, astelen, astearte, asteazken eta ostegunetan. Orduak: Atsaldako zazpi t'erdietatik zortzi t'erdietaraño.

Naparro'ko Ikastetxe Nagusiak (Unibersidadeak) emana: Irakaslea: Etxalde andreñoa. Ikastetxea: Erdiko Etxean. Asteoro, bi egunez.

Iruñe'ko "Euskalerrian Adixkideak" Elkarteak emana: Irakaslea: Diez de Ulzurrun Apez Jauna. Ikastokia: Elkarteak etxean; Pozoblanko kale, seigarrenean. Asteoro, yoan den urtean asitakoen-tzat; astearte eta ostegunetan. Aurten lendarbiziz etorriak: astelen, asteazken eta ostiraletan. Orduak atsaldako bederatzietatik amarretaraño.

Iruñe'ko "Kiroletako eta Jakintzarako Muthiko A'aiak" Taldeak emana. Irakaslea: Etxandi Apez Jauna. Ikastegi: "Ximenez de Rada" Instituoan. Asteoro, iru egunez astean. Bi ikastaro bata igzko-entzako, eta aurten lenbiziz asitakoen-tzako bestea. Orduak: atsaldako zortzietatik bederatzietaraño.

EUSKERAREN ALDEKO TALDE BERRI BAT

"Iruñe'ko San Antonio" Elarteak (Aita Kaputxinoak zuzendua), Euskal jakintzaren eta euskeraren alde an egiteko Talde bat sortu du. "Eusko Elkartasuna" deritzana. "Eusko Elkartasuna" Taldeko lagunak esan dute mintzara erri baten arima dela, Euskera Euskalerrri arima eta bizitasun nagusia dela ere bai. Euskera aspaldin galtzen, eta aurtzen ari dagola, eta alegiñak egingo dituzte gure euskal izkuntza berpiztu, indartu eta berriz zalbaltzeko gure lurraldean. Ongi etorriak izan zaitezela, gazteak!

IRUÑE'KO AURREN "EUSKAL ESKOLA"

Igaz beza'a aurten ere Iruñe'an aurrei euskeraz mintzaten erakusteko "Ikastola" bat Iruñe'ko "Euskalerrriaren Adiskideak" Elkartasunak iriki du. Gaizki esan dugu au: Igaz bezela aurten ere iriki dute'a...ez, igaz ez bezelako eskola bat iriki dute'a bai. Izan ere, aurten-go Ikastola igazkoa baño askotago

dotoreago, aunitzez obeago da. Igaz lendarbiziko urtea izan zen, eta beiti asieratan gauzak ezdira iñoiz ongi egiten. Baño aurten, joanak erakutsi duena ta, dena prestatu da ongi. "Adiskideak" aurtzo geiago-entzako Ikastola bat eratu dute, eta berrogei tamar aur egunero San Jose Plazaraño igotzen dira euskeraz ikasteko prest. Guziare-k'in Eskola txiki gelditu da ez baita lekurik etorri nai zuten ainbeste aurrentzako izaten.

Datorren urterako "Adiskideak" eta Elkarten onen Ikastorako zain'oa daukan Kortez Izal Jaun azkar, bizkor eta prestuak, Euskal Eskolako ikastegiak, edo ikasteko ganbara aundiagoak ahal diran aur guziak onartzekotan alegiñak eta lanak egiten asi dira.

Ikastolako erakus'e den Mikela Gastesi "Andreñoa", yayoki eta trebetasunez, sarrak euskaldunak egiteko lan eder ontan, ari izaten da.

Bada Iruñe'an euskerarentzat giro on eta jatorra...

Zorionak "Euskalerrriaren Adiskideak" Elkarteari Kortez Izal Jaunari, eta Mikela Gastesi "Andreñoari".

APEZA "BICHO RAROA?"

Mendian ikusten badezu «bicho» bat beñiere ikusi ez dezuna, «bicho raro» bat ikusi dezula erraten dezu. Erran nai dezu: bestengatik diferentia, gutxitan ikusten dena.

Aunitzek, ori bera pensatzen dute, apaiza bat ikustean. Jantzia ala da, raroa; bestengatik diferentia; bafian jantzi orren barrenean dagona, ez da «bicho raro» bat.

Zu bezalako gizon bat; erri batean sortua; zuk ezkontzeko bokozioa daukazu bezala, arrek apaiz izateko; bere gurasoak, erria eta gañera gauza guziak utzi eta zure errira etorri dana. Zertara? Zuri laguntzera.


Ez dago «ez» errateko, ezta ere «vigilatzeko» baizik erriari laguntzeko. Zergatik igesi? Nork konprenditu apaizak bezala zure «fallo» guziak? Nola lagundu igesi egiten badezu?

Euskaldunak fama degu, deskonfiatuak gerala, ez ditugula gauzak nola nai erraten; egia da. Ta zenbat sufritzen den ola... Mundu ontan denok bear degu lagun bat geren gauzak kontatzeko, batez ere larritasunean gabiltzanean.

Zergatik apaizaz oroitu bear dezu bakarrik ezkontzerakoan, edo erio-tzeko orduan? Apaizak izan bear du zure konfiantzako gizona. Ez dezu ikusten nola gende artean sartzen dan, tabernara joaten dan? Zergatik? Nai ezdulakoz bildurra izatea, eta eman nai dizu konfianza, zuk ere izan dezazun arekin konfianza.

Errespeto aundia, bai, bafian bildurra, ez, apaiza zure laguna delakoz, eta ez «bicho raro» bat.

AGUR



- Maritxuk: Non zabilzt, Engraxi, orrelako laisterretan?
 Engraxik: Ementxe, leher egine, nere semearentzat andregai bilien. Lenago, nolana arkitzen zen etxeandregai: orai..., ezta arrixin argiekin ere!
 M.: Ondoko bilien zabilztela egie badiozu, gaixoa zu! Oraiko neskatxak ez daude gu eskongaietan gineuden negurrien: guk geren gaztetasunean ikusi ta ikasi ginuen baño egun aldiz geiago ikusten eta ikasten dute oraikoek!
 E.: Ikusten eta ikasten..., zer?
 M.: Gauz aunitz, Engraxi, gauz aunitz: guk, zoko unteko berri genekien bakarrik: oraikoek, emengoa ta bertzena dakite: itxurez suurik...
 E.: Ta zer, Maritxu, ta zer?
 M.: Ez dakit, bada! Berek nautena egin; ta gu, ixilik egon bearko. Eta nai duena egitera iartzen denak, ez baitu menean betiko iari nai...; ez baitu nerabe bizi nai...
 E.: Etxekoandre... ta nerabe? Etxekoandre... ta menean? Zure ateraldi sakes okin kixkaltzen naizu!
 M.: Menean, bai, ta nerabe. Ez duzu uste? Ikusi! Zu, izenez etxeandrea zara: ni ere bai. Baño izetetz? Zu te ni, sukaldeko lanaren menean; txerri te oloen menean; igande, besta ta merkatuetan berriz, bei araxe, beor ta astoaren menean. Senarraren nerabe; ta umeen nerabe; umeak amabi-amairu urteetarazgeroz batez ere: itz erdi bet ezin erran oki gure arrazoiek adierazteko. Auxe gertatzen zaiku nekazari etxetan. Ia zer diozun!
 E.: Eta Iruñeko ta Donostiko karrketan bizi diren etxeandrea guziek, iduri duten bezein etxeandrea ote dire? Ala uste al duzu zuk?
 M.: Nik ez ala uste; gogoan pasatzeko ere! Baño zure ta nere alaba xorandek, bai!
 E.: Nekazari etxetako bizitzaz, nerekin mintzatu zaren bezein beltz mintzaten bazara zure alabekin..., zure umeek nekazari bizitza ez gogokoa izetea ez da arritzeko! Zertaz ez dabezu nekazari etxetako onak ere maiz-maiz aipatzen? Ohartu daitezela onetaz ere!
 M.: Zuk aipatzen...
 E.: Nik, bai: ta ez guti; ta ez guttiten. Etxeko ogie barrideko artoa baño ohea delako ori ongi sartu bear gure umeen buru-biotzetan!
 M.: Eta ala ere zu, etxeandrea gaztea ezin bilietuz...
 E.: Ara, betiko trastea! Nik nere alabak ahal bezein ongi ezten ditut; ta zuk, zureak ezitzu. Ama bakoitxak, bereak ez behar ditu. Ta... semea alabekin ez dezaket ezkonazi, aski ongi dakizun bezala. Danok gure alabei sortetxea ta errie maiteazten saiatzen bagara^a nagusigai guzientzat etxeandregai segur!
 M.: Adi zan, adi zan, traste unen agotik ik ezin uketutako egi bet. Guk bakarrik; ama ok bakarrik ari behar diñegu lan unten? Gure senarrek, ez diñe deus egitekorik? Gure mutillek, beren aiteen bidetik iarraitzeko asmoak ditiñe ezkon ondoan? Gu ta gure alabak, igande ta astelen, lanean leher egiteko: senarrak berriz, igande, besta, merkatu, ta atxiki-matxiki bertze egun frankotan, pulpe-zakuek balitun bezala, danp-asean ta ohupelakoan? Engraxi, Engraxi! Gauden eguneko nekaxtek emazte-nerabe izete au ez diñe ongi artzen. Eta ez zekiñet ez ote...
 E.: Ixoooo!
 M.: Ze ixo ta mixo! Egi bet dantzatea ez diñet zil edo?
 E.: Egie... egie...! Baño... mando pusterkari au ferratu, nork?
 M.: Begire zan! Zuzen edo makur, mando orren puzter ostikotik igeska dabilten beren uestez gure neskatxak. Ezeon aratunetik.
 E.: Norbaitek ernatu bearko geroztik! Baño gizonki guziek ire Pello ta semeak bezalakoak direla, ez zanela uste!
 M.: Gerore! Piko azkenean...

IBARRONDO



"EUSKERAREN ALDE"KO SAILLAREN BERRIAK

Lengo lumeroan esan gendun bezala, illabete ontan azken urte okean emandako diru-laguntzak aipatuko ditugu.

Urtebeteko diru-laguntzak:

Euskal Akademia, edo Euskaltzaindiak amar milla pezeta jasotzen ditu, Naparro'ko Diputazioaren partez. 1963 urte arte bost milla pezeta besterik etzituen artzen, baño 1963 urtean laguntza amar milla pezetaraño emendatu zuen Diputazioak.

«Umien Deia» izena duen Orrialdeak bost milla pezeta artzen ditu.

Emendik Zeruan dagon Aita Felipe Murieta'koarenganaño gure otoi-tzak berrito igan ditezela, bera Orrialde onen sortzaillea izan baitzen.

Goizueta'ko Euskal Teatro Taldeak bost milla pezetako laguntza bat urtean artzen du.

«Pan-Pin» deritzan aurrentzako illabeterokoak bi milla pezetako laguntza jasotzen du.

«Elgartasuna» izena duen Arizkun'go Aldizkariak milla pezeta artzen ditu.

«Auspoa» Liburutegiaren zortzi arpele edo suskriizio balioa ordaintzeko dirua ematen da (2.500 pezeta).

«Luzaide»-ko Elizako Orrialdeak bi milla pezetako laguntza urte bakoitzean artzen zituen. 1966 urtean ezta dirulaguntza ori izan, Orri orren berririk izan ez baidugulako, baño berrito argitaratzen asten denean gogoz «Euskeraren Alde»-ko Saillak emango dio laguntza ori.

Bigarren denboraldiko «Zeruko Argia» Illerokoak iru milla pezeta jasotzen zituen, 1957 urtetik 1960 urteraño. Gero «Zeruko Argia»-k beste bizitzako era bat artu zuen, eta irugarren denboraldian bizi la-



Naparro'ko Diputado don Amadeo Marko Iñitxeta Jauna Luzaide'n "Euskeraren Alde"-ko Saillak antolatutako Euskal Bestan bertako euskaldun gaztetxoek Premiaok ematen.

bur bat izan ondoren, orain lau urte badiu laugarren denboraldian sartu zela eta 1963 urtean astekaria bihurturik gure egunetaraño astez-aste gero ta mardulago, aundiago, jakin-garriago, eta egokiago argitaratzen da. Espero dugu aurten, milla pezetako suskriizio bat, bereziko arpele bat, ez laguntzeko gisan, «Zeruko Argia» berez bizitza baidu, adiskidetasun eta anaitasunaren moduan baizik egingo dugunik.

(Datorren illean segituko da)



BELEAK kua, kuaa!

Herodesen bildurrez atera zutenean Jesus Haurra, erregearen mutilak atzetik omen zabilztan. Aiek arrapatzen bazuten galdua zen betiko.

Gari ereiten ari zen gizon bat ikusi eta izketan asi izan behar zuten:

—Egun on Jainkoak dizula.

—Gauza bera zueri ere...

—Gari ereiten?

—Ala...!

—Ihitai bat behar zinuek zuk orai.

—Garia eroin orduko ihaita? Jaio behar du lehenik...

—Gure uestez ihaita billa joan behar zinuek etxera...

Badijoa gizona ihaita ori ekartzera: etzaio buruan sartzen zer nahi duketen jende oiek. Itzultzean konturatu da: garia jayo eta, ori oria, ihaitatzeko moduan arrapatu du.

Famili Sandua joan da bere bidetan eta nekazariak ez du eskerrak emateko biderik izan.

Andik denboraren buruan zaldizko batzuk agertu zaizkio:

—Aizu! Ikusi al dituzu senar-emazte batzuk beren haurrekin emen pasatzen?

—Bai. Aurrera segitu dute.

—Noiz pasatu dira?

—Gari au ereiten ari nintzan eta elkarrekin egonak geraizketan.

—Ez da, orduan, gaurko kontual!

Arbol aundi batetik bele beltzak:

—Kua! Kuaa! Or-juak! Or-juak!

—Ikusten duk zer dion orrek?

—Etzakela ik orri kasorik egin...

—...kua! kuaa!! Or-juak!! Or-juak!! —berriz ere beleak—.

—Orrek garbi esaten dik emen zer dagon.

—Ago ixilik Jainkoaren izenean! Gariak bost bat sei ilabete behar ditik ontzeko. Goazen emendik etxera.

Erregearen mutilak joan ziren etxera eta Jesus Haurra ongi atera aldi artan; baño ez bele zarrari esker!

Orduan erabaki omen zuen Jainkoak.

Kristauarendako eztela
Bele zarraren okela.

SAGI



AIZKOLARIAK

urte inork' etzuen siñetsiko ogei kana-erdiko 60 minututan ebaki zitezkenik. Apostu gustagarria izan zen eta yendea ere kontent batez ere sosa irabazi zutenak.

Zortzi egunen buruan ara bertze aizkora apostu bat eta au ere Tolosa'ko plazan. Eguberri bigarrenean Latasa eta Arruiz'ko Txikia berriz ere buruz buru aritu ziren eta oraingoan kanako onbor ikaragarriak moztu beharrak zituztela, Latasa'k IRU eta Arruiztarrak BI, biek batean asi eta zeñek lasterrago moztu. Arruiztarrak berak ebaki behar zituen egurrak aukeratzeko eskubidea zukan, Latasa'k plazara eramandako bortz egurretik. Arruiztarrak egur kontuetan aunitz dakiena baita bortz egurretatik bi oberenak aukeratu zituen iru gogorrenak eta txarrenak Latasa'rentzat utzirik. Berriz ere Arruiz'ko Txikia'k bere ahalme-

nak erakutsi zituen eta bai apostua aisa irabazi ere bi kanakoak 54-44 minutoz mozturik. Latasa'k beharko zituen 72-18 minutu bere iru kanako egurrak mozteko. Arruiztarrak denak arritu ditu, orri eztago kanako baten bentaja ematerik, kanako erdia eman balio ere Latasa'k galduko zuen. Trabesak ere lehen lenbitzik arruiztarraren alde zauden. Yende asko Tolosa'ko plazan.

PILOTARIAK

Elizondo'ko Antxitoneko trinkean eskuzko pilota txapelketa antolatu dute baztandar pilotari obere-nck bereartan ari direla. Yoanden Azaroaren 27'an asi ziren eta azkenengo partida ilabete unen 22'an eginen dute. Urrengoan erranen dugu txapelketa au nola bururatu den eta bai pilotarien izenak ere.



sa sunbildarra Zeberio gipuzkoarra kontrarioa zuelarik. Latasa'k 20 kana-erdiko moztu beharrak zituen eta Zeberio'k 17 negurri berekoak (1,25 m. itzulia), biek batean asi eta zeñek lasterrago ebaki. Aintzineko igandean Latasa'k denak arritu baitzuen oraingo apostu untan aunitzez geiago egin du, Sunbildarrak 20 onborrak Zeberio'k 17'ak baino lenago moztu baititu marka izigarria eginik. Latasa'k bere lana 45 m ta 3 s. tan egin du eta gipuzkoarrak berea 46 m. 4 s. tan.

20 kana-erdiko denbora ortan mozte arrigarria da, orai berrogei



Arruiz'ko Txikito ta Sunbildar Latasa bakoitza bere kanako onbor gañean lanean gogor artzen.

Si desea recibir esta publicación en su domicilio, exclusivamente dentro de Navarra, envíe este Boletín a: Institución «Príncipe de Viana» -Calle Ansoleaga, 1 - Pamplona.

BOLETIN DE INSCRIPCION

Don
 con domicilio en la localidad de
 Calle N.º
 desea recibir a domicilio y gratuitamente el Suplemento «PRINCIPE DE VIANA».